

Valverde'k euskeraz idazten ez zuen garaieko lana dugu au. Erderaz egiña, orain arte argitaratu gabea. Urte batzuen barru, bere lagun ez ezik, bere zenide artekoak, eskutaratu arazi digu. «OARSO» errebistan azaldu dedin.

# IXPIRITU PROBISIONALA

AYALDE'ren ipuia  
euskeralduta

LE

Lanbide ta eginbear garrantzitsuak maite etzitun ixpiritu lokabe, alfer, arlotea zan. Lanak etzuan beldurtzen; baexpadako jardunak berezi oi zituan orde, erantzun bear gutxikoak.

Orrelaxe, gazteluko mamutzar ta ostatuetako intxiu- en eginbearrak, bere gain izan zituan. Izpiritulari ospetsu batekin jardun zanean, berriz, baita Napoleo- en piura artu ere.

Zeregin zintzoak etziran beretzako, ta uxatu egiten zituan. Etzuan inoiz, gizonaren izpiritutza bere gain artu nai izandu. Eginbear gogorra ta amaigabea zeritzaion. Jaio orduko gizonaren barruratu, ta azken arnasa bitartean antxe jardutea (sarritan luzatzen dutenakin), etzan berekiko.

Etzion orde, gizon barruan aldizka izateanik muzinik egiten, ez orrelakorik! Bere jakin-minak eraginda, txolartea obeto igarotzearren, baien baino geigotan saiatusa zan. Gizon barruan bere zeregina zuen lagunen batekin topo egitean, sartu ta ordezkotza artzeko baimena eskatzen zion.

Geienetan, jabetzakoak etzion batere eragozpenik jartzen; noizpeinka, agintza berari eman ta gizonaren bazter batean lotaratuak ere, izan ziran. Egiatzko jatorra, kalez-kale firin-farin ibili zedin, baita barruan gelditu ere. Orrelakotan, gure ispiritutxoak jolasgura izaten zan; gizonarentzat arrotzak zitezkean, ta bereak etzitan zenbait asmo berri sortu, ta biurrikeriak eginazten ziozkan.

—Ez dakit zer detan, baino gogo berria nebaizen dut nere baitan—zeritzan gizonak guztiz arrituta, egi utsa zanik oartu gabe.

Onelaxe jabetu zan izpiritutxoak, Mendigain'dar Lino'ren gorputzez. Alabearrez, orde, miragarria izan zan, gertakizun ura zoritxar negargarrienean ez amaitzea.

Inulabar-iluntzean, Parte Zarretik zijoan gure Mendigain, laister prestatu bearezko sukalkintzak bere baitan ausnartuaz. Etzuan ezpai txiki bat baizik: Xaltxa berdian edo maionesarekin?...

Lagunarteko sukaldari ospetsuena zan gure Mendigain, ta maneaten zituan jaki txit goxoak, tripazai bikainenak ere beatzak xurgatuaz jan oi zituzten. Sukaldea zuan grina bakarra, edo obekiago esanik, bere Ingres-bibolina. Mantala gerriratu, baratxuri-

tipulak txikitu, txuletak erre, kokotxak maneatu ta era guztitako xaltzak gertutzea, zoragarri zitzaion. Konejua menestran ipintzeko trebetasun berezienegatik, entzute ikaragarria zuan, ta nunai goraiptua zen.

Mendigain'en izpirituarekin aurkitu zen gure gogotxu lokabea. Aspaldiko ezagunak ziranez, alkar agurtu ere. Maxkal, argaldu ta lertua zegoala antzeman zion. Baita esan ere.

—Oso gogorra dek (aitortu zion Mendigain'en zaitzaleak) gizakiarekin bear den etengabeko burruka.

—Utzi akidak nere gain, alditxo batean—, erantzun zion orduan.

—Zer diok?...

—Bai; ua ortik, ordu batzuetan ortze-zear egurastera. Pixka bat atsedean adi.

—Ondo zio. Zinera joango nauk. Azkenekoz gaur ematen ditek, oso ona dela ziotekan seme ta gurasoekiko mintza. Onekin etzeok pelikula bat ikusterik. Gero ta neketsuago dek gizon au. Geldi adi berarekin iru orduan. Nola erabili erakutsiko diat?...

—Etzeok bearrik; buruz ta ondo zekizkiat egin bearrak.

—Beraz, amarretan kontsejupean. Zintzo gero! Ez akidak adarrik jo gero!...

—Ua lasai; amar-amarretan itzuliko diat. Aizak; ze asmo zizkian onek?...

—Betikoak. Oitu bezela, Lagunartera. Beti antxe; ez niok aintzakotzat artzen. Gizakia!...


Ea ba, nerekin nai duana egiten ote duan. Gero arte.

Oranaldiko ixpiritutxoak, etzuan Lino bapatean beartu arazi nai izan. Koxketara zuzendu zuan; bere begi nabarmen, baina txit argien begiratokian goxoki kokatuaz. Gizonaren begiekin guztiz garbi ikusten dira mundu ontako gauzak, naiz ta ortarako gutxi erabiliak izan bear.

Pakean zijoan gure gizona (ez bai zuan oraindik aldaketaren zantxurik); gizakume askotxo zebiltzan kale extuak zear. Aien artean, aspaldiko zenbait lagun ezagutzen zituan gure gogotxuk.

—Zein itxura parregarria diagan ixpirituak, gizez jantzita—, zion parreka, biziro alai. Ta une berean, irri-parrezka genduan Lino, zergatia asmatu ezarren.

Inoiz ez bezela atsegin zitzaizkan, ikusten zituan neskatilak. Ardandegitik ardandegira, baxoerdiak ustuzten zebiltzan gizon itzontziak, berriz, parregarriak iruditzen zitzaizkion. Erakustokiak zeritzaizkion deigarri; txirla ta marrakuluz apaindutako kutxatxo, orratzontzi, gurutze, ta zenbait irudi agertzen diran oietakoak batez ere. Antxe ikusi zuan ta gogoan artu, Itziar'i bere egunean erregalatuko zion, sabel-urdira arroxa koloreko itxas-maskulu aundia. Bai... salako komodaren gainean jarriko zuten.



Itziar, bere emaztea zen. Nolaz gogoratzen zen ordea, emazteatzaz ordu aietan?... Arrigarria!... Nabarmenagoa oraindik, gose zantzurik ere, ez nabaitzea. Jatoki bateko sal-maian, antxe zeuden ziatutako koipea erakutsiaz, jaki goxodun zenbait kaxuela. Zijoalarik, iritxi ziran bere xaltzak prestatzera joan aurretik, baxoerdia artu oi zuan ardandegira. Zorabiaturik, zalantza bizian gelditu zitzaigun atean, bertako zalaparta ta sartu-ertenakin. Barrura begiratu, ta ondakinak baizik etzitan ikusten; marrakulu ta zotzak, ixkira-azal ta ganbaen bizarrak, zigarro-punta ta olioaranen ezurrak... Guziak, zerrautsetan naasirik, an zeuden lurrean...

Lino ez zan barruratu. Bera ote zaneke zalantza ere, sortu zitzaion; baina ez, gabardinaren poltsikoan zeramazkian baratzuri-ala berezi batzueri eskerrak, Lino Mendigain, sukaldari trebea bera zela, sinistu egin bear. Purrustadan, lurrera bota zituan ain kutun ta maitagarri zituan baratzuriak.

—Kaira!... legunki ta pozez, agindu zion gogotxuk.

Kaia, pake-pakean zegon. Inor gutxi zebilen. Lantzurda pixka bat nabari zan argiontzien biran. Giroa epel. Lino, astiro zebilen, len oartu gabez begiratu ere etzituan kaieko toki ta gauzak, maitekiro arakatu ta ikusiaz. Itunak menderatuta zijoan, baina iluntasun atsegin eramankorra zen berea. Bat-batean, inguruko eliz-torrean kanpaiak jotzeari ekin zioten, ta beren otsak, aspaldiko gertakizunak bururatu ziozkan: umealdiko garai goxo ta garrantzi gabekoak. Ikastolako eleiz-abestiak entzun, ta intsentsua ere aldareko loreen usaiakin nasturik usaintzen zualakoan zegon...

Gailendu zan ixpiritutxoak, nabar ikusten zuan; bi malko lodik, ikuspegia lausotzen ziotelako.

Kai ertzetik, neska-mutil bikotea zetorren. Oso alkaturik maitemindu ta liluratuak. Lino'k ere biotzikaraz begiratu zituan. Bere Itziar'engana itzul nai zukean, eta oraingoan bai, beti beti zakonki maitatzeko. Sarritan aztuta zuan bere emaztea, an jardungo zan, orduantxe ere, seme-alabentzat aparria genutzen. Legatzkumea ziurki... Itziar gajoa!... Inoiz arpegi txarrik erakutsi etziona; ezta akar txikienik egin ere. Emakume ona, onik bada, done bat...

Ain zorabiatua nabaiturik, zirikatzea gogora zitzaion. Ezpa pisturik, pixka bat txuliatu bear zuan. Maltzur alena!...

Inguruan lotuta zegon itsasontzia begiratzeko, urruti gabe gelditu ziran maitaleak...

Lino gizarajos! Izu-ikaraz txundituta gendun. Neska ura, Itziar zan. Gaztegoa, ta lirainagoa, baina bera; etzuan kezkarik. Bere laguna berriz... Arranopola! Erromualdo zan; Itziar'ek izandako lenengo senargaia. Au ere, gazte ta lerdan, aldirik oneneko mutila ageri zen.

Txundituta, an zegon gure Lino, neska-mutilak

urruntzen ziran bitartean. «Acuarium»era iritxi artean, etzan oldartzen asi.

Leiatsu ta pozik, ixpirituak putz egin zion:

—Jarrai akiek, egiztu ezak, ez adi or kokilduta gelditu!...

Laisterka bizian bien atzetik joanda laister zan aiekin.

—Itziar itxoidazu!... Ta, i, Erromualdo... alprojatzarra!...

Arrituta gelditu ziran. Zer nai ote zuan zoro arek?... Berekin ote zijoan?...

—Itzegin dezagun; Itziar, barkatu... Nik agintzen dizut...

—Edana dago; utzi egiozu...—senargaia galeran irtetzeko ikaraz, beldurtuta zion neskatxak...

—Ez, ez nago moskorra!—erantzun zuan Lino'k, besarkatzera abiatuak.

Berealako baten. ilunpe ikaragarrian gelditu zan gogotxu; etzuan ezer ikusten, ezta ezertxo ere... Orrelako ezbearrik etzuan usmatu. Ukabilkada gogorrez, lurrean zerraldo zegon Lino Mendigain, bere burua arrilosan talkatua.

Ilotzik gelditu etzanean!... ixpirituak iltzen utz etzezakelako zan. Erantzun bear ederra! Bere izenik ere etzekian mailatutako gizona, iltzen utzi? Ez orrelakorik!... Beregandik itzul egiteko asmoa berealakoan uxaturik, bere indar guztiekin, etsi-etsian gorputzari lotu zitzaion.

Andik zijoarean arrantzale batzuk, kordegabe arkitu ta kaieko etxetxu batera eraman zuten. Etzuten liskarraren berririk, eta etzekiten poliziarri deitu, kuarto sokorrora eraman, ala zer egin... Onena aukeratuaz, mailatutako gizonaren burua ur otzez bustitzeari ekin zioten. Noizpait alere, bere seneratu zan gure Lino. Begiak iriki ta... lenengo ikusi zuana, amar t'erdia markatzen zituan erlojua. Ixpirituxoa guztiz asaldatu zan. Amarretan itzultzekoa izan gizona, ta...

—Kontsejupera!...—orru egin zion agintari.

Zealdoka irten zan Lino, ain arduratsu zaindu zuten arrantzale aien etxetik, al zuan bezela iges eginaz.

Bitartean, itxaron aldi luzea zeraman, bere egizko izpirituak. An zebilen, aruntz-onuzka urduri, gogotxu arloteaz ernegatzen.

Noizpait alare, iritxi zan Lino, ta konturatu zan baino ere leenago, barruan zuan izpiritua, aitzakiak emanen bestea irtetzen zalarik.

Jendeak nabarmenki begiratzen zuan gure gizona. Arrigarri al zan ba?... Burua busti busti egina, alkan-dora-lepoa odolez zikindua, ta begirada zorabiatua zitularik...

Alaz ere, bere oneratzen asia zan; betiko Lino, gizon begikoa izaten jarraitzeko... Gose itzela nabari zuan beintzat!... Berrero arkitua zuan, lengo bere izpiritu argala.